Josuk bi puzzle berdin osatu ditu, eta horretarako, 1.500 pieza ondo jarri behar izan ditu. Zenbat pieza ditu puzzle bakoitzak?

Enekok 989 €-ko ordenagailu bat eta 181 €-ko inprimagailu bat erosi ditu. Hileko 9 kuotatan ordainduko ditu. Zenbat ordaindu beharko du hilean?

Maiderrek 327 kg intxaur bildu ditu. 11 kg bota egin ditu, hondatuta zeudelako. Gainerako intxaurrak 2 kg-ko poltsatan sartu nahi ditu. Zenbat poltsa beharko ditu?

Amaiak 46 m-ko oihal zati bat du. Gaur goizean, 12 m moztu ditu zati horretatik, eta arratsaldean, beste 9 m. Zenbat metro oihal ditu orain?

Loreak 46 m-ko oihal zati bat du. Gaur goizean, 12 m moztu ditu zati horretatik, eta arratsaldean, beste 9 m. Zenbat metro moztu ditu guztira?

LIVEWORKSHEETS